Eta bestetik, **JOKIN OTAMENDI AZURMENDI** jauna, Aranzadi Zientzia Elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G-20059135; Zorroagagaina 11; 20014 Donostia-San Sebastián). Elkarte hori 1947an sortu zen, eta 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 Dekretuaren bidez onura publikokotzat aitortu zen. Elkartearen Estatutuen 23. artikulua arabera, egintza hau egiteko ahalmen nahikoaz dihardu.

Dokumentu hau sinatzeko ordezkaritza eta eskumen nahikoa aitortzen diote elkarri bi aldeek, eta

ADIERAZTEN DUTE

Aranzadi Zientzia Elkarteak naturarekin eta giza ingurunearekin lotutako arazoak eta gaiak ikertu eta ezagutzea du helburu, bai oinarritzko ezagutzari bai aplikatuari dagokienez, eta ezagutza horien eta egindako ikerketen emaitzak zabaltzea.

Helburu horretarako, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta giza ondarearen arloan beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea bilatzen du, eta landa-ingurunea lurraldearen iraunkortasunarekin eta biodibertsitatearen kontserbazioarekin orekan garatzea.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak (CEA) bere estatutuen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumena –bere alderdi eta agerraldi guztietan– sustatzea du xede.

Estatutuen 3. artikulua arabera, CEAk jarduera hauek egiten ditu bere helburua betetzeko:

- Ingurumenari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta hezkuntza sustatu eta bultzatzea herritarren gain.
- Harremanak egitea ikastegiaren sortze-helburuarekin zerikusia duten instituzio, erakunde eta pertsona fisiko nahiz juridikoekin.
- Ingurumena sustatzearekin lotutako bestelako jarduerak.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua Fecha y Hora	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	15/28



IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM

CEAk koordinazio- eta lankidetzak harremanak izan nahi ditu ingurumenaren arloko prestakuntza, informazio, hedapen eta partaidetzaren alorretan diharduten erakundeekin, hartara, gasteiztarrei udalerriko garapen jasangarriarekiko konpromisoa erraztea xede.

Bi erakundeak bat datoz ingurumen-hezkuntzako programa honi jarraipena ematearen egokitasunarekin, izan ere programak hegaztien kontserbazioari buruzko ezagutza eta konpromisoa sustatzen du herritarren artean, eta espazioak kudeatzeko eta hiri-fauna kontserbatzeko proiektuak garatzeko informazio erabilgarria ematen du.

Bi alderdiek egoki ikusten dute Gasteizko udalerriko hegazti habiagileei buruzko informazioa eguneratzea, eta hala adierazten dute. Horrenbestez,

HAU ADOSTU DUTE

Dirulaguntza izenduneko hitzarmen bat sinatzea 2024. urterako, Gasteizko hegazti habiagileen atlasa egiteko boluntarioekin, herritarren zientziako programa baten barruan, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea

Irabazi-asmorik gabeko Aranzadi Zientzia Elkartearen eta CEAREN arteko lankidetzak arautzea du xede, Gasteizko hegazti habiagileen atlasa egiteko. Horretarako, boluntarioek parte hartuko dute herritarren zientziari buruzko programa batean, elkarteak urte honetarako aurkeztutako proiektu baten arabera. Proiektu hori dokumentu honen eranskin gisa erantsi da.

BIGARRENA.- Helburuak

Hitzarmenaren xedea da lankidetzak-hitzarmena bat egitea, honako helburu hauekin:

- Gasteizko hegazti habiagileen atlasa egitea, udalerrian habia egiten duten hegaztien banaketa espazialari buruzko ezagutza zehatza izateko, bai eta hegaztien ugartasunari buruzko zenbatespen zehatzak ere.
- Hiriko biodiversitatearen kontserbazio-egoera baloratzeko hegaztien bitartez, ingurumen-egoeraren bioadierazle gisa hartuta.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua Fecha y Hora	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	16/28
 IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM			

- Herritarrek hegaztien alorreko prestakuntza izan dezatela sustatzea.
- Udalerriko natura-ondarearen balioaz kontzientziatzea herritarrek.
- Herritarren partaidetza sustatzea sozialki estimulatzailerako den herritarren zientziako proiektu batean.
- Udalerriko hegaztiak behatzeko eta kontserbatzeko gakoak identifikatzea, eta hegaztiak hiriaren erakargarritasun kultural eta turistikorako duten balioa bultzatzea (ingurumen-hezkuntza eta ekoturismoa).
- Udalerriko natura-ondarearen balioaz kontzientziatzea herritarrek.
- Gasteiz kanpoan sustatzea eta biodibertsitatea kontserbatzeri dagokionez jasangarritasunaren alde egiten duen lana sustatzea.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Dirulaguntza izenduna emateko hitzarmen hau indarrean dagoen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) dago jasota, zeina 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen Tokiko Gobernu Batzarrek.

Gasteizko hegazti habiagileen atlasa egitea du xede, boluntarioek herritarren zientziako programa baten parte hartuta.

LAUGARRENA.- Programaren garapena

Hainbat ekintza egingo dira, eta Aranzadi Zientzia Elkartea arduratuko da prestakuntzaz, erroldaz eta datuen analisiaz. Halaber, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiarekin batera, atlasa zabaltzea eta editatzea ere izango du zeregin.

1.- Prestakuntza

Emaitzak aurkezteko hitzaldi bat antolatuko da herritarrei prestakuntza emateko. Jende ororentzat izango da, eta parte-hartzaileei egindako lanari buruzko oinarritzko informazioa ematea izango du xede. Hitzaldi hori online antolatuko da, eta ahalik eta pertsona gehienengana iristeko ahalegina egingo da.

2.- Erroldak

Erroldak eta prestaketa-lan guztiak egitea: errolda-protokoloak zabaltzea, datuak biltzeko bitarteko egokiak prestatzea, etab. Atlasean aurreikusitako errolda-lauki guztietako laginketa bermatzeko, boluntarioek zein profesionalek egingo dituzte erroldak.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopien osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua Fecha y Hora	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	17/28
 IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM			

Laginketak behar bezala egin daitezen, protokolo zehatzak banatuko zaizkie bazkide laguntzaileei eta parte-hartzaileei, eta beharrezko bitarteko digitalak gaituko dira. Horietan informazio hau agertuko da: erroldako koordinatzaileekin harremanetan jartzeko bitartekoak; errolda-lauki guztiak dituen mapa; parte-hartzaileen zerrenda eta esleitutako laukien zerrenda; agiri baliagarriak (protokoloak, landa-orriak): parte-hartzaileen eta koordinatzaileen arteko informazio-trukerako foroak.

Errolda-eremuaren neurriak direla eta (udalerrri-eskala), 1x1 km-ko laukiak dituen errolda-protokolo bat planteatzen da. Egindako kalkuluen arabera, 329 laukietatik % 50 inguru (164) boluntarioek beteko dituzte, eta gainerakoak, ornitologo profesionalak. Azken zeregin hori proiektuan parte hartzen duten erakunde ornitologiko guztietako langileek egingo dute.

Errolda-protokoloa honetan datza: 1x1 km hartzen duen lauki bakoitzean atzemandako hegazti-espezie guztiak identifikatzea, ordubetez, apirilaren 15etik maiatzaren 15era bitartean, eta berriz ere maiatzaren 16tik ekainaren 15era bitartean. Beraz, lauki bakoitzeko 2 ordu dira guztira, eta 658 orduko errolda udalerrri osorako. Hiri-bilbeari berari dagokionez, hegaztiak 500 x 500 m-ko laukietan erroldatzea ere planteatzen da.

3.- Datuen analisia

Lortutako datuak ustiatzea, udalerriko espezieen banaketa-mapak egiteko. Bi mapa mota sortzea aurreikusten da: batetik, presentzia-/absentzia-mapa bat, bildutako datu gordinak erakusten dituen, eta, bestetik, espezie bakoitzarentzat espero den banaketa irudikatzen duen mapa bat, zein hiriko habitat mota desberdinekin lotutako aldagaiak kontuan hartzen dituen eredu matematiko batetik abiatuta.

Datuak aztertzean, espezie bakoitzerako zenbatetsitako populazio-tamaina kalkulatu da, eta, ahal bada, baita banakoen dentsitatea ere udalerriko habitat adierazgarrienetan.

4.- Atlasa

Aranzadi Zientzia Elkartea arduratuko da atlaseko testuak idazteaz, antzemandako espezie bakoitzeko.

Aranzadi Zientzia Elkartek atlasaren maketazioa eta inprimaketa koordinatuko ditu. CEAK bere gain hartuko du atlasa maketatzeak eta inprimatzeak dakartzan kostuak.

5.- Zabalpena

Proiektuari zabalpena ematea funtsezkoa da ekimen honetan, herritarren parte-hartze handia lortu nahi baita.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	18/28



IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM

Hori dela eta, urtean mugarri hauek aurreikusten dira proiektua behar bezala hedatuko dela bermatzeko:

- Prentsa-oharra: prentsa-ohar bat egingo da proiektua zabaltzeko, herritarrek proiektuaren berri izan eta proiektuan parte hartzeko interesa piztea xede.
- Komunikabideetan agertzea: elkarriketak adostuko dira komunikabide nagusiekin, albisteari helmen handiagoa emateko. Gutxienez, 5 irati eta 5 prentsa-hedabideetan (egunkariak edo aldizkariak) egingo dira elkarriketak.
- Proiektuaren webgunea: urtean zehar elikatu egingo da proiektuaren www.atlasvg.eus, webgunea —Aranzadi Zientzia Elkarteen konturako web zerbitzari batean ostatatuta dago—, eta Gasteizko Udalaren eta kolektibo laguntzaileen webguneak eta sare sozialak gehituko zaizkio.
- Komunikazio ziklikoa: hiru urterako proiektua denez, urtero egiten da boluntarioak erakartzeko, prestatzeko eta datuak hartzeko kanpaina. Beraz, komunikazio-ekintza berriak programatuko dira, emaitzen zabalkundean indar egiteko. Bi bide izango dira horretarako: komunikabideei zuzendutako prentsa-oharrak, deialdiari hedapena emateko bozgorailu diren aldetik, eta proiektuan parte hartzen duten erakundeen komunikazio-kanalietako edukiak.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzea

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak 15.000,00 euroko ekarpena egingo dio urtero onuradunari, CEAREN aurrekontuan horretarako den 2024.0110.1722.48006 partidaren kontura.

Honela ordainduko da:

- Urteko dirulaguntzaren % 80 hitzarmen hau sinatu ondoren.
- Gainerako % 20a, proiektua egin izanaren justifikazio kontua aurkeztu ondoren; jarduera amaitu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu behar da hori hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritakoaren arabera.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ez eta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun bada ere.

Era berean, ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu.

Dirulaguntza ematean ezarritako betekizunak betetzen ez baditu, elkarteak funtsak itzuli beharko ditu, bai eta Dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzaren 20. artikuluan araututako kasu guztietan ere.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua Fecha y Hora	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	19/28
 IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM			

Diruz lagundutako programa edo jardueran funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio CEAr, berariaz eta alde zuzenetik. Berariaz baimenduta baino ezin izango da gauzatu aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu, aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

Laugarren klausulan jasotako ekarpenaren zenbatekoa ezin izango da izan programa kudeatzen duen erakundeak gauzatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, ez bakarka hartuta ezta beste edozein administrazio publikok, erakunde publikok zein erakunde pribatuk —estatukoa zein nazioartekoa— emandako beste ekarpen, dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen zenbatekoekin batera ere.

Halaber, CEAr jakinarazi beharko dio beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide jaso badu diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.

Indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko du elkarteak, bereziki zergen, lan-harremanen eta Gizarte Segurantzaren esparruei dagokienez, baita aplikatzekoa den beste edozein arautan ezarritakoa ere. Ez da inolaz ere sortuko lan harremanik edo lotura juridikorik elkartearen izenean edo haren enkarguz diharduten langileen eta CEAr artean.

SEIGARRENA.- Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da ekimen bera gauzatzeko eskuratu daitezkeen diren beste batzuekin.

Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gaintitu, inolaz ere, diruz lagundutako proiektuaren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin batera (Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 16. artikulua).

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena

Sinatzen den egunetik 2024ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean hitzarmen hau; baina 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina. Hitzarmenaren indarraldia amaitutzat joko da aldeetako batek berariaz hala adieraziz gero, eta beste aldeari hilabete lehenago jakinarazi.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasunez egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	20/28
 IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM			

ZORTZIGARRENA.- Gastuak justifikatzea

a) Entitate onuradunak jasotako dirulaguntza justifikatu beharko du 2025eko martxoaren 31 baino lehen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren 100% justifikatu beharko du, eta ez Gasteizko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik.

Dokumentazioa aurkezterakoan, dokumentuak normalizatzeko jarraian azalduko diren irizpide hauek hartu beharko dira kontuan.

b) Justifikazioa nahitaezko egintza da entitate onuradunarentzat, eta justifikazio-kontu arruntaren/sinplifikatuaren bidez egingo da ondoko dokumentazioa aurkeztuta:

b.1) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta. Agiri hauek erantsi beharko dira:

- Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, programa, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.
- Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, eta betiere diruz lagundutako jarduerak ahalbidetzen badu, deialdietan onuradunei eskatuko zaie sexuaren eta/edo generoaren arabera banakatutako informazioa emateko honako hauei buruz:
 - emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak;
 - entitateko titularrak eta plantilla;
 - kontratatu den entitateko plantilla, halakorik bada;
 - aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetzen duten beste adierazle batzuk.
- Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa.

b.2. Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu arruntaren ereduaren arabera. Eranskin hauek izan beharko ditu:

1. atala: funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotako justifikazioa

Proiektu edo jarduera hainbat entitate publiko edo pribatuk finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da eranskin hau.

2. atala: diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.

Egiaztzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua Fecha y Hora	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	21/28
 IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM			

Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da atal hori. Gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa zehaztuz. Era berean, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, baita horiek ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentuak ere.

Eskudirutan ordaintzekotan, aintzat hartu beharko da lege ezarritako mugapena.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira hartu-agiriak. Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

Hartu-agiriak datu hauek jaso behar ditu:

- Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
- Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
- PFEZren atxikipena (dagokion ogasunean ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

3. atala: proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

4. atala: langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Dirulaguntza jaso duen proiektuko langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko bete beharko da eranskin hau, eta entitate edo pertsona onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RLC agiriak) atxiki.

5. atala: gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.

Eranskin hau beteko da bidaia, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatzeko. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsi egingo dira – erabilitako garraiobidearen txartelak, tiketak, fakturak...–, zenbatekoa zehazteko oinarri baitira.

Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauei buruz:

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.
- Onuradunak proiektua gauzatzeko **soldatapeko langilerik** ez duela jasotzen duen adierazpena (bidezko bada).

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua CSV (Código Seguro de Verificación))	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua Fecha y Hora	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	22/28


IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM

- Onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion **zeharkako kostuen aitorpena**, oro har onartutako kontabilitate printzipio eta arauen arabera dagokion zatian, eta kontuan izanik horiei egotzitakoa ezin izango dela inolaz ere zeharkako kostuen % 10 baino gehiago izan.
- Onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, **zenbatekoa eta jatorria** zehaztuta, edo, halakorik badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.

c) Kontratu txikien zenbatekoa gainditu arren dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 39.999 eurotik gorakoa bada obra-kontratuetan (BEZik gabe), eta 14.999 eurotik gorakoa (BEZik gabe) hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, pertsona edo entitate onuradunak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde, edo dirulaguntza eman aurretik gastua egina badago.

d) Emandako dirulaguntzaren justifikazio eza edo justifikazio eskasa.

Justifikatzeko obligazioa betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar dezake berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

BEDERATZIGARRENA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak.

Hitzarmen honen bidez ez dira lagunduko honelako gastuak:

- Diruz lagundutako jarduerarako ezinbestekoak ez diren gastuak, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikuluari jarraituz.
- Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (adibidez, BEZa), eta errentaren gaineko zerga pertsonalak (Ordenantzaren 30.8 artikulua).

HAMARGARRENA.- Zeharkako kostuak.

Zeharkako kostutzat jotzen dira diruz lagundutako dena delako ekintzari zuzenean egotzi ezin zaizkion gastu orokorrak izan arren hura burutzeko ezinbestekoak direnak, esaterako erakundea bera mantentzeko gastuei dagozkienak (argia, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa, aholkularitza) eta kudeaketa eta laguntza arloko langileen kostuak.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	23/28


IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM

Zeharkako kostuen zenbatekoa ezingo da inolaz ere izan diruz lagundutako jardueraren %10a baino gehiago.

Kostu horiek ez dira agiri bidez justifikatu beharko.

HAMAIKAGARRENA.- Azpikontratazioa

Baldin eta entitate onuradunak hirugarren batekin hitzartzen badu azken honek burutzea, osorik edo zati batean, dirulaguntzaren xede den jarduera, azpikontrataziotzat joko da jarduera hori. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira entitate onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuak.

Diruz lagundutako jardueraren % 50 azpikontratatu ahal izango du entitate onuradunak, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29. artikuluan adierazitako baldintzetan.

Entitate onuradunaren aurrean baino ez dute erantzun beharko kontratistek, hark izango baitu diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean.

Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duen ekintzarik, haren edukiari balio erantsirik ez badakarkio.

HAMABIGARRENA.- Dirulaguntza galtzea eta itzultzea.

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 40. artikuluan adierazten diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak, aldeztatik dagokion dosierra izapidetuta.

HAMAHIRUGARRENA.- Onuradunen betebeharrak.

Finantzatutako jarduera burutzea, eta jasotako funtsak horretarako baliatzea, dirulaguntza emateko hitzarmenean adierazi bezala.

Proiektua gauzatzean aldatetarik egin bada, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari jakinaraztea.

Helburu berarekin beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional nahiz nazioartekoren batek emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari jakinaraztea, baita zertarako baliatu diren ere. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	24/28
 IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM			

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrean egiaztatzea —hitzarmen honetan jasotako diru-kopurua ordaindu aurretik— bete dituela zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta udal ogasunarekiko betebeharrak ere.

Jasotako diru-kopuruak itzultzea —baldin eta hitzarmenaren xede diren proiektu edo jarduerak betetzen ez baditu edo ezarritako baldintzetan betetzerik ez badauka—, edota diruz lagundutako kostutik gain eskuratutako kopurua.

Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egite aldera eskatzen zaion agiri oro ematea Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari eta Udalari.

Agiriak egiaztatzeko ekintzen mende jartzea, baita Gasteizko Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitakoen mende ere.

Dirulaguntza justifikatzea, hitzarmen honen seigarren eta zazpigarren klausuletan ezarritakoaren ildotik.

HAMALAU GARRENA.- Publizitatea eta zabalkundea.

Hitzarmen honen xedearekin loturiko komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, baita edozein ekitaldi publiko edo pribatu, aurkezpen, itxiera-ekitaldi eta antzekoak antolatzerakoan ere, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lankidetzara adierazi beharko da.

Leku publiko eta ikusgarri batean Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren erakunde-marka eta "Ingurugiro Gaietarako!" hiri-marka jarriko dira, proiektua finantzatzeko duen entitate gisa, proiektuari lotuta argitaratzen den publizitatean eta dokumentazioan. Horretarako, CEAKo zerbitzu teknikoak marka bidaliko du posta elektronikoz zenbait bertsio eta formatu grafikotan, bai eta horiek aplikatzeko araudia eta jarraibide orokorrak ere; orobat, esanbidezko onespena emango die ekintzetan edo erabilitako publizitate-euskarrietan markaren agerraldi guztiei.

Antolatzen diren komunikazio-jarduerak guztiak (aurkezpenak, prentsaurrekoak eta abar), baita hitzarmen honen xede diren edukiaren eta jardueren inguruko publizitate-euskarriak eta material grafiko guztia ere, bi alderdiek adostuak izan beharko dute aldez aurretik, edukiari zein itxurari dagokienez, eta edukiaren erantzule bakarra entitate onuraduna izango da.

Jarduerari zabalkundea emateko herritar guztiei zuzendutako liburuxka, kartel nahiz beste edozein euskarri bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta hurrengo klausulan adierazitakoari jarraituz.

HAMABOS GARRENA.- Hizkuntza-normalizazioaren printzipioak aplikatzea.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/ <i>El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</i> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera. <i>Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.</i>			
Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udal	Orrialdea <i>Página</i>	25/28
 IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM			

Hitzarmena egikaritzean aintzat hartuko da euskararen eta gaztelaniaren —bi hizkuntza— koofizialtasuna, eta jarduera elebitasun-irizpideen eta herritarren hizkuntza-eskubideen arabera gauzatu beharko da, halaxe xedatzen baitute 10/1982 Legeak, Autonomia Estatutuak, 86/1997 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak, eta Gasteizko Udalean indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak.

Hala, hitzarmen honekin lotura duten izaera orokorreko komunikazioek ele bietan egon beharko dute: web orria, sare sozialetan argitaratutakoa, errotuluak, seinaleztapena, jarraibideak, publizitatea, zerbitzua emateko dokumentuak, megafoniaz egindako komunikazioak, eta hartzaile jakinik gabeko gainerako komunikazio guztiak.

Bestalde, egin beharreko jarduerak herritarrekin edo erabiltzaileekin harreman zuzena izatea badakar edo hitzarmen honen bidez zerbitzu bat ematen bazaie, egiaztatu beharko da Udalak berak bete beharko lituzkeen antzeko hizkuntza-baldintzak bermatuko direla, euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin gutxienez, eta jarduera guztiak hizkuntza ofizial batean zein bestean egin ahal izan daitezen.

HAMASEIGARRENA.- Genero berdintasunaren printzipioak aplikatzea.

Hitzarmena sinatzen duen entitateak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko 14/2012 Legea errespetatu beharko du, baita Yogyakartako printzipioak ere: giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Hartara, giza eskubideen alorreko legedia eta dokumentazioa errespetatzeaz gain, hitzarmena sinatzen duen entitatearen proiektuak bat egingo du Gasteizko Udalak bultzatzen dituen genero berdintasuneko politikekin.

Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzeko konpromisoa, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuz; generoaren, klase sozialaren, jatorri kulturalaren, administrazio-egoeraren, adinaren edo dibertsitate funtzionalaren arabera desberdintasunak agerian uztera edo arintzera bideratutako helburu eta jarduketa espezifikoak txertatuz, eta ekintza positiboak aurreikusiz.

- Generoa kontuan hartzerakoan, pertsona guztiak emakume edo gizon heterosexualak direla ziurtatuz ez jotzeko konpromisoa —zisheteronormatibitatea—, ezta familia guztiak nuklearrak direla ere. Orientazio sexuala eta genero-identitatea tratatzerakoan, patologizazioa, biktimismoa eta *pinkwashing* saihesteko konpromisoa.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	26/28
			
IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM			

- Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexua/generoa aldagaia sistematikoki txertatzeko konpromisoa —emakumea/gizona/ez-binarioa edo entitateak egokitzat jotzen duen beste forma bat—.

- Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak edo pertsona-taldeak bidezko modu batean irudikatzeko, generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren araberrak ro eta estereotipoak indartu gabe.

HAMAZAZPIGARRENA.- Datu pertsonalak babestea.

Erakunde onuradunak k adierazten du betetzen duela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia, eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak.

Gainera, konpromisoa hartzen du datu horiei Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako segurtasun-neurriak aplikatuko diela, eta ez duela datu bakar bat ere lagako.

HEMEZORTZIGARRENA.- Aldatzea.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakariak hartuko du aldatzeko erabakia onuradunak aldeztu aurretik hala eskatu badu. Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabidea baimendu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskabidea..

HEMERETZIGARRENA.- Suntsiarazteko arrazoiak.

Izenpetzen dutenentzat hitzarmena suntsiarazteko arrazoi izango dira bertan ageri diren klausulak nahiz urriaren 2ko 40/2015 Legearen 51 artikuluan jasotakoak ez betetzea.

HOGEGARRENA.- Izaera eta erregimen juridikoa.

Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, eta administrazio-zuzenbidearen mende egongo da, interpretatzeari eta garatzeari dagokionez.

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena <i>Firmado por</i>	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) <i>CSV (Código Seguro de Verificación)</i>	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua <i>Fecha y Hora</i>	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria <i>Servidor</i>	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea <i>Página</i>	27/28



IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM

Hitzarmen honen inguruko edozein kontu dela eta —interpretatzea, aldatzea, eraginak, suntsiaraztea— auzia sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoa izango da.

Hitzarmen honetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza hartuko da kontuan, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako araudietan xedatutakoa.

Azaldutako guztiarekin ados daudela eta onar-tzen dutela erakuste aldera, agiri hau izenpetu dute esku hartzen duten bi aldeek.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilaren 25ean.

BORJA RODRÍGUEZ RAMAJO
CEAren lehendakaria

JOKIN OTAMENDI AZURMENDI
Aranzadi Zientzia Elkarteko lehendakaria

Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/>

Agiri honek sinadura elektronikoa darama, konfiantzazko zerbitzu elektronikoaren alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legearen arabera.

Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 6/2020, de 11 de noviembre, reguladora de determinados aspectos de los servicios electrónicos de confianza.

Sinatzailearen izena Firmado por	BORJA RODRIGUEZ RAMAJO (Presidente de Organismo Cea)		
EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua) CSV (Código Seguro de Verificación)	IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM	Data eta Ordua Fecha y Hora	22/05/2024 08:32:25
Zerbitzaria Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	Orrialdea Página	28/28



IW3Y3MOPBYSCIZZVAFCEHWJ7QM